

Euskadiko erakundeek eta agente sektorialek alferrik galdutako elikagai kopurua %50 murrizteko konpromisoa hartu dute

Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformak laguntza, kontzientziazioa eta etengabe lanean aritzea eskatu du elikagaien xahuketa murrizteko.

Kalkulatzen da Euskadin 350.000 tona elikagai baino gehiago xahutzen dela urtean, eta helburua da kopuru hori erdira murriztea 2030. urterako.



Gaur agente publikoek eta pribatuek izenpetu duten manifestuaren helburua da esfortzuak batzea 2030ean alferrik galtzen ditugun elikagaiak %50 gutxiago izan daitezen.

Gaur, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Orozek eta Elika Fundazioko zuzendari nagusi Arantza Madariagak Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma aurkeztu dute, eta erakundeen eta agente sektorialen 60 ordezkari inguruk bat egin dute "Elikagaien Xahuketarik ez Euskadin " izeneko manifestuarekin.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila eta Elika Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa ez ezik, erakunde eta instituzio publiko eta pribatuek eta euskal elikagaien katea osatzen duten sektoreko hainbat agentek izenpetu dute manifestua, jakin badakite-eta elikagaien xahuketa murrizteko beharrezkoa dela elkarlanean aritzea, kontzientziatuta egotea eta lana etengabe egitea.

Manifestuarekin bat egin duten beste batzuk dira Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila; Osasun Saila; Bilboko, Donostia/San Sebastiangoko eta Gasteizko Udalak; Foru Aldundiak; Eudel; Kontsumobide; Ihobe, Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa; Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba Kooperatiben Federazioa; Euskadiko Elikaduraren Klusterra; hainbat operadore, hala nola Bizkaiko eta Gipuzkoako Ostalaritzako Elkarteak, Mercabilbao, Eroski, UVESCO, Mercadona, Carrefour, Gastronomía Baska, Askora, Gasca Taldea, Lumagorri enpresa; ENBA eta UAGA sindikatuak; Azti zentro teknologikoa; hainbat prestakuntza zentro, hala nola Leioako Ostalaritza Eskola edo Basque Culinary Centre; ENEEK kontseilu arautzailea; izaera sozialeko hainbat erakunde, hala nola Euskadiko Elikagaien Bankuen Federazioa, Aunar Elkarteak, Lagun Arteak eta beste agente gehiago.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak, Elika Fundazioaren bitartez, Elikagaien Xahuketaren aurkako Ekintzen Plan Multidiziplinarra lantzea proposatu du, lantaldeak eratzeaz aparte.

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)